Joko patologikoak erasandako pertsonen heren bat gutxi gorabehera emakumezkoak dira. Are gehiago, beraiek izan ohi dira erasandako senideekin batera laguntza eskatzera joaten direnak (erasandakoen amak eta bikotekideak, batik bat). Depresioa, bakardadea, abandonua, komunikaziorik eza, duintasuna galtzea...; horiexek dira, besteak beste, emakume "ludopatengan" aurki ditzakegun sintomak. Erasandakoen senideek ere gorriak ikusten dituzte, lehenik arazorik badagoenik ezeztatuz eta gero jokalariaren jokabidea dela-eta beraiek ere "intoxikaturik" daudela onartu behar izanez.

"Jokoak bakardadea, inpotentzia, komunikaziorik eza, abandonua,... eragiten badizu... irteera daukazu!" kanpainaren baitan, Errehabilitazioan dauden Jokalarien Arabako Elkarteak (ASAJER) hainbat **mahai-inguru** antolatzeko asmoa du. Aipatutako mahai-inguruek ludopatia dela-eta emakumeek pairatzen duten egoeraz hitz egitea dute helburu. Bertan parte hartuko dute jokalari patologikoek- gizon zein emakume-, erasandakoen senideak diren emakumeek, Alcoholismo eta Ludopatia Zerbitzuko (Osakidetza) profesionalek eta erakundeetako ordezkariek. Beraien ikuspuntuak entzungo ditugu eta arazo hori dela-eta emakumezkoen egoera nola sumatzen duten jakiteko aukera izango dugu.

# HIRU DIRA ABIAN JARRIKO DITUGUN MAHAI-INGURUAK

| | | |
|---|---|---|
| Vitoria-Gasteiz | Urriaren 6an 19:00-20:30. | Goiuri Jauregia. Martín de Salinas Aretoa |
| Salvatierra-Agurain | Urriaren 20a 17:30-19:00. | Erakuskeka Aretoa. Kale Nagusia, 17. |
| Amurrio-Laudio | Azaroaren 10a 17:30-19:00. | Kultur Etxea. Landako kalea, 6. |

Jarduera horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Elkartearekin harremanetan jar zaitezkete:

ASAJER.
Alaba Jeneralaren kalea, 25-1.esk. VITORIA-GASTEIZ.
Tlfno: 945140468 / 945234990.
aajr@euskalnet.net

## ANTOLATZAILE:

ERREABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA ( ASAJER )

## LAGUNTZAILE:

Arabako Foru Aldundia
Gizarte Gaietarako Saila
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

Diputacion Foral de Alava
Departamento de Asuntos Sociales
Instituto Foral de Bienestar Social

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Departamento Municipal de Salud y Consumo
Osasunerako ekontsumorako Udal Saila
Area de Salud Pública
Herri-Osasun Arloa

AGURAINgo Udala
Ayuntamiento de SALVATIERRA

Ayuntamiento de
AMURRIO

# *Ludopatiari eta Emakumeei buruzko sentsibilizazio eta informazio Kanpaina.*

## MAHAI-INGURUAK

**(Vitoria-Gasteiz, Agurain, Amurrio, 2005)**

**“Ludopatiak zer-nolako eragina duen emakumeengan”**